


NERABEENTZAKO ZERBITZUETAN TEKNOLOGIAREN ERABILERA ADOSTEKO DOKUMENTUAREN LANKETA

Haur, nerabe eta gazteentzako zerbitzuetan esku-hartze birtuala lantzeko taldean sortu dugun Teknologiaren Erabilera Adosteko Dokumentua eredu bat da eta, hortaz, udal edo zerbitzu bakoitzak bere errealitatera egokitu beharko du. Dokumentu honek bi zati nagusi ditu: adostasun-dokumentua eta hartzaileek sinatu beharreko ituna.

Eredua zerbitzura egokitzeko hurrengo pausoak eman beharko lirateke:



EKARPENAK

1

Hezitzaile-taldeak ereduan beharrezkotzat jotzen dituen ekarpenak egingo ditu, eredia zerbitzuaren egoerara ahalik eta hobekien moldatuz.



LANKETA

2

Dokumentua nerabeekin landu beharko da eta, haien ekarpenekin, dokumentua bera eta ituna osatu (itunak dokumentuaren laburpena izan behar du).



BATERATU

3


Dokumentuaren testua osatu ondoren, udalaren edota zerbitzuaren logoa jarri behar zaio eta formatua bateratu.



SINATU + IKUSGAI JARRI

4

Behin ituna adostuta, eman beharreko hurrengo pausoa sinatzea izango litzateke. Ituna nerabe bakoitzak banaka sinatu ordez, guztiek orri bakarrean sinatuko dute, eta zerbitzuan bertan ikusgai jarriko da.



ZABALDU

5

Nerabeekin ituna sinatu ondoren, adostasun-dokumentua udalean zabaldu beharko da eta nerabeen guraso edo tutore legalei ere helaraziko zaie.